

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honetako ikaslearen orriak aldizkari txiki baten formatuan dituzu. Aldizkari-itzura eman nahi badozue, kopiak DIN A3 tamainan atera ditzakezue, eta erditik tolestu, ondoko irudietan bezala:

Lehenengo DIN A3a (kanpoko):

AZALA ETA KONTRAZALA

2. ETA 7. ORRIALDEAK

08 | ekarpenak



AIMAR KARRIKAREN BERTSOAK

Diako nekazaria
Inoiz emagarriz
Dirakada miltzatu
Auzoak ikusi ezarri
Ezkerreko urrea
Auzoak berriro
Mintzatu ezarri
Zakarra eta berria
Lekuzan sartu
Egia buruko saria
Ezkerreko urrea
Nerean eta gaur
Ezkerreko urrea
Dena ezarri berria

ZERBATERAREN KOMEDIA



LEHEN EGUNA



21 KORRIKA

Egin klik KORRIKARI!



Lehenengo KORRIKA 1800an egin zuten ondoren, baina 19 dirioz etxeri dira, eta gutxiadan istorio **AKOP** zaku gertatu dira. **Laster, aipatzeren 4ra, 21. KORRIKA** hasiko da, **Garaen**. **Ondu** izango duzu zure istorioa **bi**z izateko aukera!

02 | 21 KORRIKA

KORRIKAKO istorio bitxiak



KORRIKAKO histori bitxiak, istorio esko gertatu zaizkie antolatzailei eta parte-hartzailei. Orri hauetan, guri batak irakurri ahal izango dituzte.

Plazara gaur, irudia bitxiak

Lehenengo KORRIKA antolatzen hasi zenean, ADKO antolatzaileek KORRIKA antolatzen hasi zuten. Korrikariak 2.000 kilometroko ibilbidea egiten zuten, eta antolatzaileek KORRIKA antolatzen hasi zuten. Korrikariak 2.000 kilometroko ibilbidea egiten zuten, eta antolatzaileek KORRIKA antolatzen hasi zuten.

denbora-pasak | 07

LEKOK OSATU

Itati furdien izenak daguzkion lekuan eta, KORRIKA bakoiz letra irakurri duzu.

Izan korrika laguntzailea



Bigarren DIN A3a (barrukoa):

6. ETA 3. ORRIALDEAK

4. ETA 5. ORRIALDEAK

08 | 21 KORRIKA

HERETI BERTSOAK

"Hiru izango da zure abizen KORRIKA"

OSATU GERTAKIA

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

Gaurko gara

Historia bitxi

KORRIKAKO parte hartzaile adin ez

Beltz orria

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

04 | 21 KORRIKA

KORRIKA orria

KORRIKAKO parte hartzaile adin ez

Beltz orria

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

Gaurko gara

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

Heretik bertsoak

Osatu gertakia

EGIN KLIK KORRIKARI! A2

HELBURUA

Ataza honen helburuak dira ikasleak KORRIKAREN giroan murgiltzea eta parte hartzera animatzea.

PROZEDURA

A. "EGIN KLIK KORRIKARI!" ALDIZKARIA AURKEZTU

A.1 "Aimarren bertsoak osatu" jolasa

- Aimar Karrika aurkeztuko dugu eta "Osatu bertsoak" ariketa banatuko diegu (4. or.).
- Osatu gabeko bertsoak eta oinak ozen irakurriko ditugu, eta ulertzen ez dena talde handian argituko dugu.
- Ikasleak, binaka, bertsoak osatzen saiatuko dira. Erantzunak talde handian alderatuko ditugu.
- Ariketa zuzentzeko, "Aimarren bertsoak osatu, 2" bideo-pasartea ikusiko dugu.

- Irakasleak egoki deritzen azalpenak emango ditu bertsoari eta bertsolaritzari buruz.
- Aldizkaritxoak banatuko ditugu.

A.2. Zaldieroaren komikia

- Zaldieroa komikigilea aurkeztu ondoren, aldizkariko komikia irakurri (8. orrialdean hau ere) eta ulertu duten, gustatu zaien... komentatuko dugu (KORRIKAREN hasiera irudikatzeko, komikigileak Indiana Jonesen film bat dakar gogora).

Zaldieroa komikilaria

Patxi Huarte Larraburu, Zaldieroa (Faltzes, Nafarroa Garaia, 1966ko urtarrilaren 14a), euskal komikigilea da. Gaur egun, Berria egunkarian, *De rerum natura* komiki-zintak egiten ditu, eta kolaborazioak egin izan ditu *Aizu!*, *Nabarra*, *Bertsolari*, *Xabiroi* eta Karrikiri elkartearen *Karrika* aldizkarietan. Deia egunkariko *Ortzadar* gehigarrian ere argitaratzen du.

B. KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

B.1. Istorioak irakurri eta elkarri kontatu

- Ikasleek "KORRIKAKO istorio bitxiak" artikulua irakurriko dute: ikasle bakoitzak istorio bat irakurtzeko eta ondo ulertzeko ardura izango du (aldizkariaren 2.-4. or.).
- Taldeka elkartu, eta istorioak elkarri kontatuko dizkiote.
- Solasalditxoak egingo dugu: zein istorio gustatu zaizue gehien? Zeinek harritu zaituzte gehien? Ezagutzen al duzue horrelako istorio gehiago?
- Bakarka, aldizkaritxoan proposatzen zaien ariketa egingo dute. Zuzenketa, talde handian egingo dugu (aldizkariaren 4. or.).

ERANTZUNAK:

1. zen / zuen. GEZURRA. Udazkenean egin zen; 2. zuten / zuen. GEZURRA. Mezua galdu zen, ez lekukoa; 3. ziren. GEZURRA. Gose-greba bi egun lehenago amaitu zuten; 4. zituen ("zuen" ere onar daiteke). EGIA; 5. ziren. EGIA; 6. da. EGIA; 7. zuen. GEZURRA. Bastidatik igaro ondoren gurutzatu behar izan zuen; 8. zituzten / zen. GEZURRA. Araban sartzean, bideak garbitu gabe zeuden.

B.2. KORRIKAKO istorioen lehiaketa

- "Neure KORRIKAKO istorioa" orria banatu ondoren (irakaslearen orrietan, 5. or.), istorio-lehiaketa aurkeztu, eta ikasleak parte hartzera animatuko ditugu.

Oharra: lehiaketan KORRIKAKO bizipenak kontatu behar direnez, ariketa hau KORRIKA igaro ondoko egunetarako utz dezakegu, edo, nahi izanez gero, aurreko edizioetako bizipenak idatz ditzakegu.

C. KORRIKAN PARTE HARTZEKO MODUAK

- "Hamaika modu KORRIKAN parte hartzeko" artikuluan, ikasleek lau lagunen bizipenak irakurri eta proposatzen den ariketa egingo dute (aldizkariaren 5.-6. or.).

ERANTZUNAK:

1. Amaiak / zaio. EGIA; 2. hartzera. EGIA; 3. denetik. EGIA; 4. zen. GEZURRA; 5. Auritzera. GEZURRA; 6. Olatzek. EGIA; 7. dela. EGIA; 8. askorik. GEZURRA.

- Solasalditxo egingo dugu: zein lagunekin identifikatu zara gehien? Zuk nola bizi izan duzu KORRIKA?
- Hiriko, herriko edo auzoko KORRIKA -egitarauaren berri eman, eta parte hartzera animatuko ditugu: prestaketan guri edo KORRIKA batzordekoei laguntzeko (herria apaintzen, materiala saltzen, txandaren bat egiten...) edo gelakoekin planen bat egiteko (ekitaldiren batean parte hartzeko, herri-bazkarira elkarrekin joateko, euskaltegiaren kilometroan korrika egitera joateko, KORRIKA hasiera edo amaierara joateko...).

D. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak egingo dituzte (aldizkariaren 7. or.).

ERANTZUNAK:

Hitzak; zuhaitza, alkandora, ilargia, sagarra, untxia, garagardoa, musika, txakurra, trena, marrubiak.

Leloa: Zuk ere esan bai euskarari! (1. KORRIKA)



AIMAR KARRIKAREN BERTSOAK**Aimar Karrika (Auritz, 1988).**

Gaur egun, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko "Bertsolarien Lagunak" bertso-elkarterako ari da lanean, irakasle. 18 urte bete zituenetik hartzen du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Azken hiru edizioetan, finalera iritsi da. 2017an hartu zuen parte lehen aldiz Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusian.

Jarraian, 21. KORRIKARI eskaini dizkion bertso batzuk entzun eta irakurriko ditugu.

**AIMARREN BERTSOAK OSATU**

Ikasle nekaezina

Heldu (1)

Irakasle militante

Amets batek (2)

Etorkin iritsi berri

Amatxi (3)

Mintzatzen saiatzen zaren

Zaharra eta (4)

Lekukoaren egurra

eta barruko (5)

Ikurrina da berdea

Morea eta (6)

Korrikak bildu dezala

Denon euskara (7)

Gazte zaharkitu eta

Zahar aldarte (8)

Herriari sustraitua

Ta adar hosto (9)

Korrika iritsi zaigu

Berriz (10)

Ez gaudela irauteko

Hemen gaudela (11)

Pausoz pauso euskaldunon

Ama Lurra (12)

Hogeitabatgarrenean

Prest naiz korrika (13)

Bakar bat falta delako

Partida (14)

ORRIA
BERRIA
EKARRIA

GORRIA
HERRIA
MIRESGARRIA

HASTEKO
ADIERAZTEKO
HAZTEKO

IRABAZTEKO
ASKEKO
MARRAZTEKO



